

2021 ekitaldiko "Enpresak sortu eta garatzeko prozesuan laguntzeko programaren barruan egin zenuten laguntza eskaerari buruzko ebazpenari erantsita, laguntzari buruz aspektu zehatz batzuk gogorarazi nahi dizkizugu

1.- Erakunde onuradunen betekizun eta konpromisoak. (I. eranskina 8. oinarria)

8.1. Entitate onuradunek dirulaguntzak onartzeak berekin dakar honako arau hauek ezartzen dituzten betekizunen pean egotea: 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoa; hura garatzeko araudia, 2008ko apirilaren 29ko 24/2008 Foru Dekretuaren bidez onartua, dirulaguntzen inguruan aplikagarri izan daitekeen gainerako araudia eta oinarri orokor eta berezi hauek ondorioztatzen direnak.

8.2. Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialen erabilera bermatuko da diruz lagundutako proiektuaren ondorioz egiten diren jakinarazpenetan, argitalpenetan eta zabalkunde jardueretan, hala agintzen baitu 2018ko ekainaren 26ko Diputatuaren Kontseiluaren erabakiak, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta bere organismo autonomoen jardura esparruetan 2018-2022 aldirako onartzen duenak (Gipuzkoa ko ALDIZKARI OFIZIALA, 149 zk. 2018ko abuztuaren 3koa).

8.3. Genero ikuspegia sartu beharko da diruz lagundutako proiektua diseinatu eta garatzerakoan.

8.4. Hizkuntzaren erabilera ez sexista bermatuko da diruz lagundutako proiektuaren komunikazio eta argitalpen guztietan.

8.5. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuak diru laguntza-zen xederako ematen duen finantzaketari beharrezko publizitatea emango zaio. Horretarako, haren irudi instituzionala sartuko da, finantzaketa publikoari eta esku hartze publikoko programaren xedeari buruzko aipamenekin batera, karteletan, material inprimatuetan, baliabide elektronikoko edo ikus-entzunezkoetan eta abarretan, hedabideetan egiten diren aipamenekin batera.

8.6. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuak ezartzen dituen ebaluazio baldintza guztiak bete beharko dira; horien bitartez, jarduerak eta emaitzak eta inpaktuak neurtuko dira eraginkortasunetik eta eragimenetik.

8.7. Emandako dirulaguntzak ondasun inbetariagarriak erosteko erabiltzen badira, 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, 30.4. artikuluan ezarritakoa bete behar da.

Horrenbestez, erakunde onuradunak dirulaguntzaren xederako erabili behar du eskuratutako ondasun hori, gutxienez 5 urtetan erregistro publiko batean inskriba daitekeena bada, eta gutxienez 2 urtetan beste kasu guztietan.

8.8. Dirulaguntza eman zenetik bost urteko epean, Gipuzkoako Lurralde Historikotik kanpo helbide soziala, fiskala edo produkzio zentroetako zati nabarmen bat beste toki batera eramanez gero, dirulaguntza itzuli beharko da eta 14. oinarrian ezarritakoa aplikatuko da.

2.- Diruz lagundutako jarduerak azpikontratatzea. (I. eranskina 9. oinarria.)

Erakunde onuradunek beste batzuekin hitzartu dezakete diru laguntzaren xedeko jarduera osoa edo zati bat beraiek egitea, baldin eta 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, 28. artikuluan ezarritako beharkizunak betetzen badira. Inolaz ere ezingo da azpikontratatu diruz lagundutako jardueraren kostua areagotuz jarduera horri ezer gehitzen ez diotenak.

28.3 artikulua (martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak). Hirugarrenekin hitzartutako jarduerak dirulaguntzaren zenbatekoaren %20 gainditzen badu, eta zenbateko hori 60.000 eurokoa baino handiagoa bada, birkontratazioak beharkizun hauek bete beharko ditu:

a) Kontratua idatziz egitea.

b) Kontratua egin baino lehen, dirulaguntza ematen duen entitateak hartarako baimena ematea oinarri arautzaileetan ezarritako moduan.

3.- Diru laguntzak ordaintzea. (I. eranskina 11. oinarria.)

11.1. Dirulaguntza proiektua amaitutakoan ordainduko da, 12. oinarrian aurreikusitako justifikazioa aurkeztu eta gero.

11.2. Salbuespen gisa, laguntza programaren helburua –enplegua sortzea–, entitate onuradunen ezaugarria –ekintzailetzari laguntza ekosistemaren eragilea– eta, gainera, kasu batzuetan irabazi asmo gabeko entitateak direla kontuan izanda, ordainketa aurreratua egin daitezke, diruz lagundutako jarduerak aurrera eraman ahal izateko beharrezko finantzaketa moduan, pertsona, enpresa edo erakunde onuradunak eskaera egin eta finantzazio beharra duela zuriu ondoren. Laguntzaren aurrerakinak proiektuari ekiten zaionean eta hasiera hori behar bezala egiaztatuta dagoenean ordaindu ahal izango dira, betiere, baliabide nahikoa bada eta dirulaguntza osoaren % 60 gainditzen ez bada.

Halaber, dirulaguntzaren izaerak hala justifikatzen duenean, ordainketa berri bat egin ahal izango da, lehen egindako

ordainketarekin gehituta dirulaguntza osoaren % 85ekoa baino txikiagoa izan behar duena, betiere lehen aurreratutako diru kopurua behar bezala eta dokumentuz zuritu bada, beharrezko finantzaketa egiaztatzen bada, baliabide nahikoa badago eta diruz lagundutako jardueren gauzatze erritmoarekin eta aurkeztutako zuriaketekin bat baldin badator.

Gainontzeko kopurua proiektuaren amaieran eta 12. oinarrian aurreikusten den dokumentazioa aurkeztean ordainduko da.

11.3 Salbuespen gisa, emandako dirulaguntza oso-osorik ordaindu ahal izango da proiektua edo jarduera amaitu baino lehen, diruz lagundutako jarduerak aurrera eraman ahal izateko beharrezko finantzaketa moduan, horretarako banku edo finantza erakundearen abala aurkeztu beharko da, Gipuzkoako Foru Aldundiaren iritziz nahikoa dena. Banku edo finantza erakundearen abal hori aurreratutako diru laguntzari eta aurrerakina ematen den une beretik eta proiektua gauzatu arte sortzen diren berandutza interesari erantzuteko modukoa izango da. Berandutza interesatza joko da uneko diruaren legezko interesari.

Abala indargabetu egingo da dirulaguntzaren xedeko proiektua amaitu dela deskargu tekniko, ekonomiko eta finantzarioz egiaztatzen denean, hain justu, 12. oinarrian aurreikusten den dokumentazioa aurkeztuta.

11.4. Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntza buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauaren 32. Artikuluan aurreikusitakoari jarraituz, ezin izango da ino lako ordainketarik egin erakunde onuradunak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko edota entitate laguntzaileekiko betebeharrak bete tzen ez dituen bitartean. Horregatik, ordainketa egin baino lehen, Ekonomia Sustapeneko Zerbitzuak betebeharrak bete tzen dituela egiaztatuko du. Horretarako, zuzenean eskatuko ditu datu horiek dagozkion organismo igorleetatik; hori posible izango ez balitz, eskaerak leari eskatu ahal izango zaio dagokion dokumentazioa aurkeztea.

4.- Diruz lagundu daitezkeen kostuak. (IV. eranskina 4. oinarria.)

Diruz lagunduko diren kostuak ondorengoak izango dira:

- Pertsona edo talde sustatzailearen dedikazioa (600 euro/hilabete gehienez).
- Enpresa esparruan edo proiektuaren arabera berariazko esparruan gaitasunak eskuratzea.
- Kanpo aholkularitza eta laguntza teknikoaren gastuak.
- Prospekzio azterlanak eta dokumentazioa.
- Azoketara joatea, bidaiatzea eta abar.
- Maketa eta prototipoak egitea.

5.- Diruz lagundu daitezkeen kostuak. (III. eranskina 4. oinarria.)

12.1 Kasu guztietan, entitate onuradunak frogatu beharko du diruz lagundutako jarduera gauzatu izana, baita jarduera horrek sortutako kostuak ere.

12.2 Dirulaguntzaren xedeko proiektua edo jarduera hilabeteko epearen barruan zuritu behar da, eta epe hori diruz lagundutako proiektu edo jarduera hori gauzatzeko epea, urteko deialdian ezarritako dena, amaitzen denetik kontatuko da.

12.3 Aurreko paragrafoan zehaztutako epearen barruan, entitate onuradunak kontu zurigarri bat aurkeztu beharko du ondorengo agiri hauek jasoz:

— Dirulaguntza emateko ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen jarduera memoria, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazita Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuaren web orrian eskuragarri dagoen ereduaren arabera. Proiektua gauzatu bitartean sortutako agiri eta txosten guztiak erantsi beharko dira, baita proiektuari buruzko dokumentazio grafikoa, argazki bidezkoa edo ikus-entzunezkoa.

Era berean, eta ebaluazio-prozesu integral bat ziurtatu ahal izateko, Departamentuak, ahal den neurrian, Ogasun eta Finantza Departamentuarekin kontrastatuko ditu, entitate onuradunak baimena eman ondoren, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 92.1.1) artikuluan xedatutakoaren arabera, laguntza-eskaeraren aurreko hiru ekitaldi fiskaletan eta ondorengo bost ekitaldietan, eragiketa-bolumenari eta negozio-zifrarik, esportazio-bolumenari, % 5etik gorako akziodunen nortasuna eta zerga helbideari, 3.000 eurotik gorako entitate hornitzailei, beste sozietate batzuetako partaidetzari (nortasuna, zerga helbidea, portzentaia) , oinarriko jardueraren epigrafe fiskalari, batez besteko plantillari, plantillaren soldata-kostuari; eta, sozietateen gaineko zergaren kuota efektiboari buruzko datuak.

— Memoria ekonomikoa, jardueren kostua frogatuko duena. Honako edukiak izango ditu:

a) Zerrenda sailkatu batean jasota, jardueraren gastuak, bakoitzaren hartzekoduna eta agiria, zenbatekoa, jaulkipen data eta ordainketa data adierazita. Dirulaguntza aurrekontu baten arabera ematen bada, horrekiko desbiderapenak adieraziko dira.

b) Fakturak, edo merkataritzako trafiko juridikoan haien pareko frogabalia edo eraginkortasun administratiboa duten agiriak, aurreko paragrafoan aipatutako zerrendan adierazitakoak, eta, behar izanez gero, ordainketaren egiaztagirak.

- c) Beharko balitz, aurreko a) atalean aipatu den zerrendara gehitutako gastu orokorrak eta/edo zeharkakoak banatzeko irizpideak adieraziko dira.
- d) Diruz lagundutako jarduera finantzatzeko jaso diren beste diru sarreren edo laguntzen zerrenda xehatua, zenbatekoa eta jatorria adierazita.
- e) Entitate onuradunak, ekipo-ondasunen horniduran edo aholkularitza edo laguntza teknikoaren arloko enpresen zerbitzu-prestazioan, diruz laguntzeko moduko 15.000 euroko edo hortik gorako kostuak egin baditu, eskatutako hiru eskaintzen artean egindako aukeraketa egiaztatzen duen dokumentazioa, non eta laguntza horren ezaugarri bereziak direla-eta behar adinako enpresa edo profesionalik ez dagoen zerbitzu horiek emateko, edo kostua dirulaguntza eskatu aurretik egin den. Aurkeztu diren eskaintzak, justifikazio fasean edo, bestela, dirulaguntza eskaeran aurkeztu behar direnak, efizientzia eta ekonomia irizpideen arabera hautatuko dira. Hautatutakoak proposamen ekonomikorik onenak ez badira, berariaz zuritu beharko dira memoria batean.

12.4 II. eranskinaren 2. oinarrian aurreikusitako jardueren kasuan, dirulaguntzaren zuritzea aipatu eranskinaren 4. oinarrian jasotako moduluen bidez kreditatuko da.

Eta, aurkeztu behar den dokumentazioa, honako hau izango da:

— Jardueraren memoria, dirulaguntzaren xedeko jardueraren garapena zurituko duena. Horretan sartuko dira, halaber, egindako jardueren xehetasunak, lortutako emaitzak eta egindako bideragarritasun plana.

— Memoria ekonomiko zurigarria, gutxienez honako xehetasunak emango dituena:

- a) Modulutzat hartu diren unitate fisikoen kopuruari buruzko egiaztagiria edo, holakorik ezean, pertsona onuradunaren aitortpena.
- b) Egindako zerbitzuari buruzko faktura, II. eranskinaren 4. oinarrian aurreikusten diren moduluetan kuantifikatu diren jarduerak oinarri hartuta kalkulatu.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauaren 30.2 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, II. eranskineko dirulaguntzetan gastua egindakotzat eta lagungarritzat jo ahal izango da, nahiz eta ordainduta ez izan, baina kasu horretan pertsona onuradunak ordainketa hori egin duela egiaztatu beharko du laguntza kobratu ondorengo 30 egunetan.

c) Diruz lagundutako jarduera finantzatzeko jaso diren beste diru sarreren edo laguntzen zerrenda xehatua, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

12.5 Kostuak egiaztatzeko jatorrizko agirien kopia elektronikoa, informatikoa edo telematikoa aurkeztuko da, baldin eta agiri horien egiazkotasuna, osotasuna eta zaintza bermatzen badira.

12.6 Dirulaguntza justifikatzeko ezarritako epea amaitu eta ez badira oinarri hauetako 3. eta 4. ataletan aipatutako agiriak aurkeztu, organo eskudunak 15 eguneko epea emango dio entitate onuradunari agiri horiek aurkezteko. Bigarren epe horren barruan justifikazioa aurkezten ez bada, 14. oinarrian aurreikusitako ondorioak eragingo ditu.

12.7 Entitate onuradunak, laguntza ematea bultzatu zuen jarduera burutu izanaren eta jasotako fondoak aplikatu izanaren egiaztagiria 4 urtez gorde beharko ditu nahitaez. Epe hori kontatzen hasiko da entitate onuradunak aipatu ziurtagiriak aurkezteko ezarrita dagoen denbora amaitzen denetik aurrera.

12.8 Oinarri honetako 3. eta 4. puntuetan adierazitako dokumentazioa aurkeztu ondoren, Ekonomia Sustapeneko Zerbitzuak egiaztatuko du egoki diren egiaztapenak egingo ditu.

Besteak beste, egiaztatuko du eskatzaileak zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela. Horretarako, zuzenean eskatuko ditu datu horiek dagozkion organismo igorleetatik; hori posible izango ez balitz, eskatzaileari eskatu ahal izango zaio dagokion dokumentazioa aurkeztea.

Egiaztapen horretatik ondorioztatzen bada diruz lagundu daitekeen kostua emandako dirulaguntza baino txikiagoa dela, doitu egingo da dirulaguntza. Dirulaguntza justifikatzeko ezarritako baldintzak edo dirulaguntzaren xede ziren helburuak, osorik nahiz zati batean, ez badira bete, horren berri emango zaio eskatzaileari egiaztapenaren emaitzekin batera, eta aldi berean hasiera emango zaio dirulaguntza jasotzeko eskubidea galdutzat emateko prozedurari, edota diru laguntza osorik nahiz zati batean itzultzeko prozedurari (14. oinarrian aurreikusten da).

6.- Ebazpena aldatzea. (I. eranskina 13. oinarria.)

13.1. Entitate onuradunek organo emai leari eskatu ahal izango diote, diruz lagundutako jarduera egiteko epea amaitu aurretik, aldatu dezala dirulaguntzak emateko ebazpena, baldin eta finkatutako epeak luzatzea, emandako dirulagun- tza murriztea, diruz lagundutako aurrekontu atalak aldatzea edo jardueran bildutako ekintzak aldatzea badakar. Aldaketa horiek ezusteko kausen ondorio direnean edo jardueraren helburua lortzeko beharrezkoak direnean baimenduko dira, betiere dirulaguntzaren xedea aldatzen ez bada eta hirugarrenen eskubideak kaltetzen ez badira.

13.2. IV. eranskinen jasotako jarduketan kasuan (oinarri teknologikoko enpresak eta/edo enpresa berritzaileak sortze ko prozesuan laguntzeko dirulaguntzak), onuradunek dirulaguntzaren titulartasuna aldatzea dakarten aldaketak eskatu ahal izango dizkiote organo emai leari, diruz lagundutako jarduera egiteko epea amaitu baino lehen. Entitate onuradunaren eskaeran dagokion arrazoia eta justifikazioa jasoko dira.

Dirulaguntzaren organo emai leak eskaera horren inguruan ebartziko du, kasu bakoitzean interes publikoko helburua betetzeko, baldin eta dirulaguntza balditza objektiboan eta edonork betetzeko modukoan arabera eman bada eta ez bal- dintza guttiz pertsonalen arabera, eta onuradun berriak dirulaguntzaren onuradun izateko oinarri arautzaileetako bal- dintza gutziak betetzen

baditu.

Kasu horietan, onuradun berriak bere egingo ditu sor daitezkeen eskubideak eta betebeharrak, eta oinarri arautzai le hauetan entitate onuradunari jarritako betebeharrak guztiak bete beharko ditu. Eta halakorik balego, bere ardura izango da jasotako dirulaguntzak itzultzea eta ezarri daitezkeen zehapenak ordaintzea.

Onuradunaren aldaketak ekar lezake emandako dirulaguntza aldatzea, baldin eta dirulaguntza emateko finkatutako irizpideak aplikatzean espedientearen puntuazioari eragiten badio.

Onuradunaren aldaketak ezingo du ekarri, inola ere, emandako dirulaguntza handitzea.

13.3. Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuak ofizioz alda dezake dirulaguntza emateko ebazpena, betiere entitate interesatuari entzuna naldia eskainita eta funtsak ezarri aurretik, baldin eta dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzen aldaketak galarazten edo zailtzen badu erdietsi nahi den interes publikoa lortzea eta onuradunari ez bazaio kalte ekonomikorik eragiten.

13.4. Entitate onuradunak egiaztapen-agirian jakinarazten badu aldatu egin direla dirulaguntza emateko kontuan hartu ziren baldintzak eta, aldaketa horiek direla eta, lehen adierazi eran ebazpena aldatzea zilegi zatekeela, baina aldaketa onartu aurreko baimen administratiboaren tramitea ez zela egin bere garaian, Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuak onartu egin ahal izango du aurkeztu dioten egiaztapen-agiria, baldin eta erabaki horrek hirugarren batzuen eskubideak urratzen ez baditu, eta alde batera utzi gabe entitate onuradunari jar dakiokkeen isuna, 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzak arautzen dituenak, dioenari jarraikiz.

7.- Ez-betetzeak eta itzulketak. (I. eranskina 14. Oinarria)

14.1 Entitate onuradunak ez badu betetzen oinarri arautzaile hauetan, 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauan eta gainontzeko araudi aplikagarrian ezarrita dauden baldintzetakoren bat, laguntza jasotzeko eskubidea galduko du erabat edo neurri batean, eta jasotakoa itzuli beharko du osorik edo neurri batean, aipatutako foru arauaren 35. artikuluan xedatutakoaren arabera legezkoekin berandutza interesekin batera, eta, erantzukizunak eskatuko zaizkio, aipatutako foru arauaren 49. artikuluan eta ondorengoetan xedatutakoaren arabera.

14.2 Bete gabe utzi dena mailakatzeko, proportzionaltasunaren irizpideak erabiliko dira, eta irizpide horiek organo instruktoreak balioetsiko ditu, egindako lanen arabera onuradunak proiektua zer neurritan burutu duen eta zenbateko diru laguntza jaso duen kontuan hartuta.

14.3 Borondatezko itzulketatzat jotzen da pertsona ala entitate onuradunak dirulaguntza ematen duen organoak eskatu gabe egiten duena.

Itzultzeko prozedura hasteko, idatzi bat bidali behar dio Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko foru diputatuari, eta bertan, datu hauek sartu behar ditu, betiere:

- Entitatearen izena eta identifikazio fiskaleko zenbakia.
- Entitatearen ordezkartzan jarduten duenaren izen-abizenak eta identifikazio fiskaleko zenbakia.
- Borondatezko itzulketa egiteko arrazoen azalpena.
- Tokia eta data.
- Sinadura.

Idatzi horrekin batera, agiri bat aurkeztu behar du egiaztatzeko itzulketa egin dela deialdiak zehaztutako finantza-erakundearen kontu zenbakian.

Borondatezko itzulketa gertatzen denean, dagozkion berandutza interesak kalkulatuko ditu dirulaguntza ematen duen organoak.

8.- Europar Batasuna (I. eranskina 15. oinarria)

15.1 II. eta III. eranskinean aurreikusitako dirulaguntzak berez ez dira estatuko laguntzak Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Itunak 107. artikuluko 1. puntuan xedatutakoaren arabera.

15.2 IV. eranskinetako dirulaguntzek 2013ko abenduaren 18ko Europar Batzordearen 1407/2013 EB Erregelamenduan (ikus 2013ko abenduaren 24ko Europar Batasuneko Egunkari Ofiziala), minimis laguntzak Tratatuak 107. eta 108. artikuluen aplikazioari buruzkoan, xedatutakoa beteko dute.

Europar Batasunak ezarritakoaren arabera, enpresa bakar bati emandako minimis laguntzak ezin dira guztira 200.000 eurotik gorakoak izan dagokion zerga ekitaldian eta aurreko bietan.

9.- Finantzaketa komunitarioa (I. eranskina 16. oinarria)

16.1. Dirulaguntzaren xede diren jarduerak Europar Batasunak aurreikusitako helburu eta ekintzekin bat datozen heinean, finantzaketa komunitarioa lortzeko izapidetuko dira.

16.3. IV. eraskinari dagozkion oinarriak eta deialdia bat datoz Eskualde Garapenerako Europako Funtsaren (EGEF) Euskal Autonomia Erkidegorako 2014-2020 programa operatiboarekin.

16.4. Europar Batasunarekin batera finantzatzen diren diru laguntzak komunitateko araudiak eta garapen eta transposizio arauak arautuko dituzte, kasuan kasu.

16.5. Europar Batasunaren kofinantzaketa lortuz gero, diru laguntzaren xedeari buruzko aipamen publiko orotan jasota geratuko da: EGEFen (Eskualde Garapenerako Europar Funtsa) %50eko finantzazioa, lelo hau jarrita: «Europa egiteko modu bat».

16.6. Diruz lagundutako entitateak bermatu egin behar du 2014-2020 EGEF programa operatiboari dagozkien kostuen eta kontu ikuskaritzaren egiaztagiri guztiak Batzordearen eta Kontuen Auzitegiaren eskura egongo direla hiru urteko epean, programa ixten denetik hasita, edo, egin diren urtetik hasita

10.- Proiektuak gauzatzeko data.

Erakunde onuradunek **2022ko urriaren 14rako** amaitu behar dituzte diruz lagundutako proiektuak.

INFORMAZIO GEHIAGO

- Enpresak sortu eta garatzeko prozesuan laguntzeko programaren oinarri aldaketa eta 2021eko deialdia (GAO 2021eko maiatzak 10, 85 zk.).
- Enpresak sortu eta garatzeko prozesuan laguntzeko programaren oinarri aldaketa eta 2020ko deialdia (GAO 2020ko uztailak 10, 130 zk.).
- Enpresak sortu eta garatzeko prozesuan laguntzeko programaren oinarri aldaketa eta 2018ko deialdia (GAO 2018ko apirilak 18, 74 zk.).
- Enpresak sortu eta garatzeko prozesuan laguntzeko programaren diru laguntzen oinarri arautzaileak (GAO 2017ko uztailak 4, 127 zk.).
- Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzko martxoaren 27ko, 3/2007 FORU ARAUA. (G.A.O. 2007ko apirilak 12, 71 zk.).
Apirilaren 29ko 24/2008 FORU DEKRETUA, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Diru Laguntzen Foru Arauaren Erregelamendua onartzen duena. . (G.A.O. 2008ko maiatzak 6, 85 zk.).